

Pil
bi  **ean**



Aratustiak argazkitan

Soraluzeko aldizkaria

32. alea

2001eko otsaila



Soraluzek



UDALAK EZEZKOA PROPARKEREN ESKAERARI
BITTORIANO GANDIAGA HIL DA
AMODIOZKO GUTUN LEHIAKETA



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**



GOL, S.A. Industriak
Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 Soraluze

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

Pil bazkide zozketia

**Ñaco Goñi eta
Malcom Scarparen
diskuaren IRABAZLIA**

Maidier Ruiz

**Hil honetan
MIKEL URDANGARINEN
azken lana espilue**

**eta irabazlia...
Lazaro Trebiño**

Editoriala

Bai Euskarari plan estragikua ezarriko da herrixan, bazekizuen ?
Ba bai halaxe da. Plaentxiak beste salto bat emon dau euskerian alde eta dagoeneko martxan dago Bai Euskarari plana herrixan. Euskalgintzaren lanak, Udalaren prestutasunak eta jentia erakutsitako borondatiak, euskalduntze plan hau probatzen daben Euskal Herriko 12 herri pilotuetako bat bihurtu gaitu. KORRIKA be hor dator eta prestatu dan egitarauakin, ez da inor konturatu barik geldittuko. Lan haundixa egitten dihardugu euskararen alde eta lan horrek lehenago edo beranduago baina seguru, emongo dittu fruituak, goxo goxuak.

Baina danak ez dira barri pozgarriak izan azken hilabetian. Bitoriano Gandiaga, hainbeste aldiz San Andres ermittara, Hirukurutzetara eta Plaentxiara mezia emotera etorri zan fraile berezi haura hil da. Goian bego.

Bestela kontu aipagarri gutxi. Edurrak zurittu dittu baztarrak baina laster juan da. Ez dakigu berriz etorriko dan. Pil Pilean barriz etorri eta etorri, urtian hamaika aldiz, oindio!

Telegrapak: Katuak eta usuak gosez hil nahi dittuan dekretuaren kontrako manifestaziorik ez da egin, baina egin bihar litzake. **STOP.** Ezoziko futbol zelaixan, girua bero bero dabil, ari da ari da boxeorako afiziñua pizten. **STOP.** Herriko kulturgintza, korrika eta prisaka egitaraua prestatzen, Korrika badator eta. **STOP.** Beste herririk, gurea baino euskararen aldekuagorik, ez da izango. **STOP.** Euskaldunaguak asko, baina... **STOP.** Dantza taldia mutilik barik geldittu da, ia mutilak, urreratu batenbat. **STOP.** Belarri Haundiagoa jauna, euskarazko berba batzuk esaten hasi da, tipo horrek euskara barru barruan daroia. **STOP.** Proparke, proparke, proparke. **STOP.** Alkate, alkate, alkate. **STOP.** Konpondu, zaittezte, zaittezte, zaittezte. **STOP.** Besterik ez. **STOP.** Ondo bizi.

Kolaborazioa



Irati Aldazabal

**Irakaskuntza
karramarruen
antzer!!!**

Mende berrian sartu garela argi dago, eta azkenengo hamarkadetako aurrerakuntza teknologiko zein zientifikoek bizimoduan hobekuntza bat ekarri dutela ere denok daukagu nahiko argi, horretaz hitz egiten dugunean behintzat, halako tonu baikor batez iharduten dugu. Hala ere, ideia horrekin ez nago batere ados, mundua gero eta txarrago dijoala iruditzen baitzait zentzu askotan.

Oraingoan bereziki irakaskuntzaren inguruan bi hitz esatea gustatuko litzaidake. Nire esperientzia ez da oso luzea, lau hilabete besterik ez, baina nahikoa izan da irakaskuntzan gaur egun dagoen arazoetako batez konturatzeko: ikasleen errespetu eta disziplina falta. Arazo honi arazoak aurkitzen ibili naiz azkenaldi honetan arrakastarik gabe (batez ere tutore naizenetik eta gurasoekin zuzenean ikasleen arazoez hitz egiten behar izan dudanetik).

Bide horretan, ondorio batera iritsi naiz. Hain zuzen ere, gaur egungo ikasleen porrotaren erantzulea, gizartea dela eta batez ere gurasoak. Gurasoak lan egitera behartuta daude gaur egungo martxa jarraitzeko, eta horrek gauza batzuk sakrifikatzea ekartzen du, sarri seme-alabek ordaindu behar izaten dutelarik. Ikasleek beraien gurasoen laguntza behar dute; arau batzuk, kontrolatuak izatea eta noski, afektibitate izugarria.

Zoritxarrez, guraso biek lan egiten duten etxeetan, gurasoak iluntzeko azkenengo hiru edo lau orduetan bakarrik egon daitezke beraiekin. Honekin esan nahi dudana zera da, gurasoek eta gizarteak (irakaskuntza barne) orokorrean zeregin bat dutela etorkizuneko gizon-emakumeak hezitzen, eta hobera joan beharrean txarrera goazela iruditzen zaidala.



32.
alea

Argitaratzailea:

Pil Pilean Kultura Elkarte

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze. Telefonoa 943 75 13 04

Lan taldea:

Amaia Agirre, Enara Agirre, Elene Alberdi, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Maria Azkona, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Izaskun Gartzia, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Gorka Prieto, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno

Posta elektronikoa: Pilpilean@euskalnet.net **Publizitatea:** Egoitz Unamuno (943751304 tel.) **Banaketa:** Pil Pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale **Inprimategia:** Gertu Koop. **Legegordailua:** SS-537-2.000 **C.I.F.-a:** G20696563 **Azala:** Aitor Madrid **Diseinua eta Maketazioa:** Aitor Madrid **Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.**



Aldizkari honek

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Soraluzeko Udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko



Oharra: Ahalik eta iritzi gehienek lekua izan dezaten, ez da komeni makinazko 15 lerro baino gehiago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena eta datu pertsonalak agertu beharko dute. Bidali gutuna **27. Posta Kutxatilara - 20590 Soraluze**. Laburtu behar izanez gero, **Pil-Pileanek** horretarako eskubidea izango du.

Zorionak Soraluze

* Mila esker euskalgintzan hainbat urteetan lanean jo eta sua aritu zareten euskaltzale guzti-guztiei.



* Zorionak ezker abertzaleari urteetan borrokatutako Euskara Batzorde Propioa eta Euskararen Aholku Batzordea legealdi honetan osatu direlako.

* Txalo bero bat AEK euskaltegiari azken hamarkadetan egiten diharduen euskalduntze eta alfabetatze lanarengatik.

* Eta KORRIKA bultzatu duten eta bultzatuko duten soraluzetarrei Korrika Batzordeen bitartez gure esker ona adierazi.

* Ezin dugu ahaztu EHE, euskararen defentsan burututako lana aipagarria iruditzen baitzaigu.

* Zorionak Herri Ikastetxei ere, haur eta gazte belaunaldi berriei euskaraz hezitzen lan handia egiten baitute.

* Pil Pilean gure Kultur Elkarte eta aldizkariko partaideak, bazkide kanpaina. Herriko euskaltzaleon

topagunea martxan ari da.

* Eskerrik asko, BAI EUSKARARI Batzordeari, eta ahaztu nahi ez dugun abar luze bati.

Herri ekimenak euskararen berreskurapenerako prozesuan izan duen, daukan eta izango duen garrantzia begi bistan dago. Beraz oraingoan Euskararen Kontseiluak hainbat herritan bultzatutako Plan Estrategikoa Soraluzen onartu bada, herri ekimena eta instituzioen arteko derrigorrezkoa den elkarlanari esker izan da.

Kontseiluko ordezkaria eta Alberto Suduperi ere zorionak, baina bakoitzari berea eman behar zaionez, ez dezagun ahaztu arestian aipatutako talde eta pertsona guztien lanari esker bildu direla argazki batean Soraluzeko alkatea eta Euskararen Kontseiluko ordezkaria.

Soraluzeko EH

Iterga gunean parke eraikuntza

Alkate Jaunari Zuzenduta:

Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen Eremu Deprimituak Berreskuratzeko IZARTU egitasmoaren berri izanda, etorkizunean ITERGA INURRIETA GUNEARI irtenbidea emateko lehen urratsak emateko garaia dela uste dugu.

Leku hori, atsedean edo aisialdi gune bat egiteko proposa dela uste dugu.

Gure eritziz, lokalaren behin-behinekotasunaren beharra ikusiz, IZARTU Egitasmoari irtenbide egokia emateko edo denbora zehatz batean soluzioak aurkezteko erabili beharko litzateke, Alkate Jaunak, berarekin izandako bilera baten aipatu zigun bezala (Santa Anako lokala erostea, horrela herrian dauden beste arazo batzuei erantzuteko balioko luke, hala nola: Musika Eskola...).

IZARTU egitasmoari dagokionez eta Udalaren iritziz, asmo hori burutzea luzerako joango litzateke beste obra asko egiteko daudelako.

Horregatik, aparkalekua eta biribigunerako pentsatutako tokiak berplanteatu beharko lirateke lehen urrats honetan eta hemen aipatzen ditugun proposamenerako egokitu.

PROPOSAMENA:

- Udalak erabiliko duen lokalaren behin-behinekotasuna.

- Gelditzen den tokia aisi gune moduan erabiltzea.

Erantzunik ematen ez zaigun bitartean lanak gelditu beharko liratekeela uste dugu, adostasun batera iritsiko garen itxaropenez agurtzen zaitugu:

Santa Ana kaleko auzolagunen taldea

Pil Pilean bai, esan...

Plazentziako bi neskatilak honako mezua laga doskue:

Soraluzen ez dago haurrendako jolastokirik eta zinerik be ez. Haurrak jolastokixak eta zinia nahi dittugu ipini mesedez.

Deitu

943 75 13 04 telefonora

zure kexa edo eritzia kaleratzia nahi badozu.

ARANE

Kiroldegia



Tel: 943752466

Komikia



Gorka Prieto



aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03
Faxa 943 75 22 95
20590 Soraluze

Zein arazo ikusten dozuz herri mailan euskara erabiltzeko?



Maitane Maiztegi
27 urte
tabernaria

Ez dot arazorik ikusten, ni euskeraz moldatzen naiz. Uste dot herrixan geixenek ulertzen dabela euskeraz baina ez dakixenekin ba erderaz egitten dot..



Ibai Rascon
19 urte
ikaslea

Arazo haundixena, euskeraz egitteko, gure ohitturia da. Herri mailan euskera entzuten da, naiz eta danetik dagon.



Iosune Jauregi
18 urte
ikaslea

Arazua medikuanera juandakuan ikusten dot, ez dakixe euskeraz eta ume txikixetan be ikusten da erderaz egitten dabela, eskolak elkartu eta gero. Jende gaztiagan gero eta geixau entzuten da erderia, nahiz eta Plazentzia herri euskalduna izan, kanpora juaten bazara, adibidez Eibarrera, dana erderaz entungo dozu.




Egoitz Portu
18 urte
ikaslea

Ume txikixak erdarara joteko joeria deuke oin, len euskeraz egitten genduan. Tabernan erderaz egitteko joeria daukagu, baina beste tokixetan korreosen adibidez erderaz besterik ezin dozu egin, bestela ez dotxue ulertzen eta.



Naiara Elgeta
25 urte
loradendako langilea

Euskeraz dakixen tokixan, euskeraz egitten dot, eta euskeraz egitteko arazoa dagonian erderaz, nahiz eta hau ez dan toki askotan gertatzen. Umien kasuan, danak egitten dabe euskeraz, danak ikasten dabe euskeraz eta..



Jon Arrieta
19 urte
ikaslea

Arazua guban dago, dakixenek euskeraz ez dabelako egitten eta guk dakixenei erderaz egitten dotxegulako. Herri mailan dagon arazua guria da, erderaz ez dogulako egitten, bestela herri mailan danok dakigu zeinek egitten daben euskeraz eta zeinek erderaz.

Ugaitz Catalan * Izaskun Gartzia

ARMENDIA JATETXEA



Sukaldaritza tradizionala

Ezoz Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

ARRANO-TABERNA SORALUZE



MARTXA eta BORROKA

Proparkeren proposamenak Udalaren ezezkoa jaso du

Santa Ana kaleko auzolagunek osatutako "Proparke" taldeak, Iñurrieta inguruetan aisialdiko parketxo bat egitea proposatu dio Udalari. Hauen esanetan, "herrian dagoen aparkamentuen arazoa konponduko ez duten 14 auto-erendako aparkalekua egitea baino, zentzuzkoagoa da, herritarren bizi kalitatea hobetuko duen aisialdi parkea egitea". Gainera ez dute uste, hau proposatzeak, "herriaren ikuspuntu globalaren falta" erakusten duenik, "ikus-puntu global horretan lehenatasun ezberdin batzuk proposatzen ditugu, autoak baino garrantzitsuagoak gara herritarrek eta lehenatasuna herritarrok izan behar dugu". Udalak bere aldetik ezezkoa eman



Santa Ana ko bizilagunak udaletxean egindako bileran.

dio proposamenari, baina aurrerago agian, 2-3 urteren buruan gauzatu ahal izango dela esanaz. Alberto Sudupe, alkatearen esanetan, Loralden, Ezosi Bidean, San Andresen, Karakaten egiten ari diren lanek, argi erakusten dute Udalak aisialdi eta atsedeneak sortzeko nahia daukala. Bestalde Santa Anan aparkamentuak ezin-

bestekoak direla irizten dio, Sacian, Atxurin eta Ezosi Bidetik Estaziora bidea egiteko egingo diren lanak direla eta, herrian aparkamentu asko galduko delako. Alkateak, Udala, herri osoari begiratzen dion plangintza batekin ari dela jokatzeko eta eurei ere ikuspuntu zabalago batekin joko dezatela eskatu die.

Uso eta katuei jaten ematearren, arazoak

Udaletxeak zabalduko idatzi batek dioenez, katu zein usoei jaten emateak zenbait arazo sortu ditu Sorraluzen. Herriko bazter batzuetako keak izan dira honen eragile. Itxura denez, jende askok janaria jaurtitzen zuen bide erdira (arrain zatiak...) herriko animalia hauei jaten emateko asmoz. Baina aldi berean, honek zikinkeria eta usain txarrak ekarri ditu, eta hau berriz gerta ez dadin, udaletxea herritarrei zuzendu zaie jana ematekotan era egoki batean egiteko eskatzeko.

Sutea Errekaldeko etxe batean



San Blas egunaren bezperan, Otsailak 2, sute bat izan zen Errekalde kaleko 30. zenbakian. Udaltzaingoak itzalgailuen bitartez sua itzaltzea lortu zuen, ondorio latzgarriak sahestuz. Sua, etxeke jabeak konturatu gabe komuneko berogailu elektrikoaren gainean arropa bat uztean sortu zen. Zorionez, esan bezala, ez zen zauriturik izan, nahiz eta galera material handiak sortu.

Gas naturalaren instalazioak aurten amaituko dira

Laister hasiko den lanen bigarren fasea burutu ostean, amaitutzat emango dituzte gasaren instalakuntzarako lanak. Honako bigarren fase hau bi zatitan banatuko da: alde batetik, Gilako zubitik Serafin Atxotegiraino iritsiko dena, eta bestetik, udal-erretetik Zeletarainoko

bidean dauden kaleak zeharkatuko dituenak. Obra hauek hasteko lizentzia hemendik bi astera emango dute gutxi gora-behera, lanak apirilean hasiko direlarik. Orain gutxi, arduradunek inkesta bat egin zuten kaletarren artean, eta jasotako emaitzak onak izan ziren.

Iaz, energia mota honetako lehen instalakuntza fasea burutu zen, eta zabaldu zituzten ubideak aprobetxatuz, zuntz optikoko hodiak sartu zituzten. Ondorioz, etorkizunerako teknologia berriak sartzeko aukera izango dugu gure herrian.




Hnos. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoak konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Bolia taberna



Soraluze

Etxaburueta kalia Telefonoa: 943 74 11 04

Soraluzeko haurren euskara



Umien euskara

Soraluzeko udalak ikerketa bat egin du “herriko haurren egoera soziolinguistikoa aztertuz, etorkizunean abiatu beharreko hizkuntza bizi-berritzeko egitasmoak ahalik eta probetxugarrien gerta daitezten”. Sei-hamaika urte bitarteko haurren euskararen gaineko ezaguera eta erabilera ikertu dute eremu ezberdinetan, eta gurasoen iritzia ere kontutan hartu da. Emaitzak zati desberdinetan banatu dira; alde batetik, familia arteko giroa aztertu da, eta “gurasoek familiako hizkuntza ezartzeko garaian duten eragina” esanguratsua dela ikusi da; guraso biak euskaldunak

direnean, haurren %77 beti euskaraz aritzen da hauekin, euskalduna bietako bat bakarrik denean ordea, kopurua %48 ra jeisten da. Hortaz, “euskaraz egin ahal izateko kide guztiek euskara jakiteak” garrantzi handia du. Beste alde batetik, eskola eta lagunarteko harremanetan umeen ama hizkuntza euskara edo gaztelera izateak bere eragina du euskararen erabilerari dagokionez. Jaiotzetiko hizkuntza euskara duten gehienek gela barruan zein kanpoan euskaraz egiten dute. Bestalde, etxetik erdaldun datozenen artean, erdiak baino gutxiagok erabiltzen du euskara gelakideekin aritzeko

orduan. Gurasoei dagokienez, hamarretik zortzik euskara beharrezko hizkuntza dela diote, eta “eskola tresna baliagarria dela uste dute (%97)”, euskaraz aritzeko eremu gehiago beharko lirakeela eskatuz. Hori guztia dela eta, hainbat ondorio atera dituzte. Hala nola, “dexente” direla “oraindik euskaraz jakin bai baina hitz egiteko garaian erraztasun gehiegi ez dutenak”, hauek gaztelararako joera izaten dutelarik, eta era berean, familiaren hizkuntza transmisioarekiko eraginkortasuna nabarmentzen da.

Arianne Unamuno Eguzkine
Aldazabal Enara Agirre eta
Maria Azkona

EAREN HITZALDIA



Otsailaren 22an Nekane Alzelaik emandako hitzaldia izan zen Soraluzen. “Euskal Herrirako marko politikoa berri baterantz” plana aurkeztu zuen gatazka gainditzeko. EAren iritziz egungo marko politikoa agortua dago eta egoera gainditzeko metodologia bat proposatzen du, alderdi politiko guztiak partehartuko luketelarik negoziazioan. EA Euskal Herrirako errepublika federala aldarrikatzen du.

“Eskabadora” baten trabatzeak ur mozketak eragin zituen




Hilaren 23an, induskailu (eskabadora) bat trabatuta gelditu zen Zeletako gorengo etxeen atzekaldean. Bertan ubideak berriztatzen ari dira, eta lanean zihardutela, ez aurrera ez atzera geratu zen esandako lekuan. Horren ondorioz, egunean zehar herriko zenbait kaletan ura kendu zuten, behin baino gehiagotan.



Eginberri
Okindegia

SANTA ANA, 4 Telefonoa: 943 75 25 43 Soraluze

ELIZpE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

Eraikuntza historiko bat botako dute

Elizburu kaleko lehen zenbakian dagoen eraikina botatzen hasi ziren lehengo asteazkenean. Etxe hau 700 urtetan zehar Soroluzeko historiaren lekuko izan da, 1343koa, Soroluze eraiki zenekoa baita. Azken aldakuntzak orain mende bat jasan zituen, eta orainarte horrelaxe mantendu da, Elizburu kaleko eraikuntzetatik lehengo itxura duen bakarra izanik (besteengandik metro bat aurrerago). Etxe honetan Soroluzeko



Eraikuntza hau Soroluzeko historiaren lekuko ixila izan da

familia garrantzitsuenetako bat izan den Ibaratarrak bizi izan ziren, azpian Atxolin taberna zegoelarik. Eraikuntza historiko honen

lekua beste batek hartuko du laister, lehengoaren mailakoa ote?

Sinadura bilketa Karakateko zentral eolikoaren aurka

Mendigainak ikutu bez!"eko kideak larunbatero egon dira Idigoraseneko iskinan, Karakate eta Hirukurutzeta bitartean egiteko asmoa duten parke eolikoaren aurka herritarron sinadurak batzen. "Mendigainak ikutu bez!" plataforma, iazko maiatzean sortu zen, Mendigainean zentral eoliko bat eraikitzeke asmoa zegoela jakin zutenean. Bertako kideek adierazi dutenez, beraiek ez daude energia eolikoaren aurka

errotak toki egokietan kokatzen badira, izan ere, proiektuan 40 errota



jartzeko asmoa dago eta hauek Mendigainak gaur egun duen lasaitasuna hondatuko lukete. Gainera, proiektuak arriskuan jarriko lituzke Karakaten

dauden balio handiko aztarna arkeologikoak. Udaletxeko ingurugiro arduradunak ere zentral eolikoaren lanen aurka azaldu dira. Gainera, iaz Karakate "Biotopo Babestu" izendatzea onartu zen ahabatez udaletxeko plenon. "Mendigainak ikutu bez!"eko kideak gustura azaldu dira bildutako firma kopuruarekin, herritarren partetik jaso duten jarrera ona eskertuz.

Kontzentrazioak ETArean atentatuaren ostean



Hilaren 22an, ETak Donostian atentatu bat egin zuen Ordiziako PSE-EEko zinegotzi den Iñaki Dubruelen aurka. Bonba-autoa Martutene auzoko RENFERen tren geltokian leherrarazi zuten eta ondorioz, Elektra S.A. enpresako bi langile hil ziren. Horrez gain, bi larri zauritu zituen eta zinegotzia, bigarren mailako erreduren eta metrailak eragindako zaurien ondorioz, kirurgia gelan sartu zuten. Azken honen bizkarzaina etxean da dagoeneko, zauri arin batzuk besterik ez baitzituen. Hori dela eta, hurrengo egunean, Ibarretxek eguerdirako deitutako eta arratsaldeko 8:00etarako "Gesto por la paz" deitutako kontzentrazioak egin ziren, atentatua gaitzetsi eta bakea eskatzeko.

Iñaki Iñarra Txapeldun Bilbon

Soroluzeko Iñaki Iñarra harakiñak Txarriduna elkarte ezagunak antolatzen duen, Bilbo Hiria Txarri produktuen txapelketako txorixoen saria irabazi du. Txorixo goxoak egiten ditu nunbait ! Zorionak !

ETXEBARRI[®]
Barra kargadore automatikoak
Tuerka roskaatzaileak
Ranuratzailak
Makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Estazioa 7, Posta Kutxatila 62
Telefona(943) 75 18 91
Faxa 75 18 91

20590 SORALUZE - PLACENCIA
(Gipuzkoa)

FER. S.A. Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialdea, 17 - 20590 Soroluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Rosa Uribelarrea

“Kolore guztiak dira politak”

Ludotekan kolorez ingurutako atsaldia pasau eta gero egin dogu berba Rosakin. Barre algara ederra bota eta ene!... “harrapau non horraitxio”... esanda ekin dotsa berriketaldixari. Eman dittuan erantzunekin pixkat gehixago hurreratu gara beregana eta ez hori bakarrik, badago hor airian geratu dan kontutxo bat...ez dakit ba, kiñuan kontu hori egunen baten argitu biharko dosku... tira hurrengo aleren baten akaso.

Izen-abizenak

Rosa Uribelarrea Basagutxibeascoa
Zelakua da Rosa

Ba... umoretsua, adar jotzailia, jenixo bizikua, baitxa otzana be.Badakizu zelako egoeria halako erantzuna.

Lanik onena...

Badago guztiz gustokua dan lanik ala?
Zein da egun baterako planik onena?

Eskaparating. Goizian goizetik, etxetik kanpora joatia egun pasa, adibidez, Bilbora,kalian gora eta kalia behera ibiltzia gustoko eskaparatiak ikusten, zelako gustora...

Sekula ahaztu bihar ez dan zeozer

Ajendia, azkenaldi honetan dana ahazten jata.

Kolore bat

Kolore guztiak dira politak.

Ez da diruakin erosten...

Azken hilabete honetan Mendaroko bidia makinatxo bat aldiz egin dot eta gaixuak ikusita, dudarik barik, osasuna. Zelakua izan bihar da pertsona bat zure gustokua izeteko?

Umore onekua, sanua eta inbidixa bakua.

Plazentziako txoko bat

Elizataixa. Gaztetan ordu mordo bat igaro dittugu bertan.

Sagardotegixak

Jan eta majo edan ondoren ixildu barik jarduteko tokixak.

Ezin dittuzu jasan

Berandu heltziak.

Zeri dotsazu bildur haundixa

Hiltziari, ze egongo ete da Zeletako zuluan beste aldan!

BEDERATZI PUNTUKO BERTSUAN

Rosa Uribelarrea Basagutxibeascoa umeentzat ludotekan diharduen neskatoa. Adar jotzaile bikaina ta umore onekoa, jeniotik ere badu piztu ezker nahikoa. Kolore gusto mixtoa, hiltzeari panikoa, bizitzeari gustoa, kontraste horretan doa, kiñu goxoak egiten dituen hoietakoa baina ez gaizki ulertu bestela zaplastekoa.

Etxebarri



Rosa Uribelarrea

Eguneko hiru momentu

Bazkal osteko kafia, gurutzegramata eta zigarrua.

Mania bat

Pertsonaren bat agurtzerakuan burua jasotziaz batera kiñua egittia, gaizki ulertzeren bat be gertau izan da.


Txisteren bat...

Oihanian misiolari bat eta ia gosez akabautako lehoi bat aurrez aurre darella,misiolarixa zihero bildurtuta

belaunikatzen da eta erreztatzen hasten da: Gure jauna animalixak be zure erreñukuak dira eta kristau bihurtu deila eta laga naixela hemendik juaten, mesedez jauna...

Lehoia be belauniko jarri eta erreztatzen hasten da. Jauna bedeinkatizu aurrian dakaten janarixa, eskerrak emoten dotsuraz...

Gururu



Bai Euskarari Plan Estrategikoa SORALUZEN

Soraluze izango da Euskal Herri osoan, Bai Euskarari plan estrategikoaren lehen aplikazioak egiteko aukeratu diren 12 herri pilototako bat. Bai Euskarari Plan Estrategikoa gizarteko 5 arlotan aplikatuko da herrian eta 2.500.000 pezeta baino gehiagoko aurrekontua izango du.

Orain bi urte Bai Euskarari lemapean egin zen kanpaina arrakastatsuak, izen bera baina funtzio ezberdina daukan Bai Euskarari Plan Estrategikoari laga dio tokia. Kanpainan eta honen ostean nazio mailan burutzen ari den plana, herri mailan ere aplikatzea da, plan estrategiko honen helburua. Plan hau, Euskal Herri osoko 12 herritan aplikatuko da bakarrik, esperientzia pilotu moduan eta Soraluzeko herria izango da aukeratutako 12 herri horietako bat.

Kontseiluarekin akordioa sinatu duen lehen Udala

Kontseiluaren proposamena eztabaidatu ostean, herrian plangintza hau aurrera eraman behar duten eragile talde nagusiek, Euskalgintzak eta Udalak baietz esan zioten Soraluzen plana ezartzeari. Udalak bere aldetik, 2.500.000 pezeta baino gehiago jarri ditu plana finantziatzeko eta lankidetzaz hitzarmen bat ere sinatu du Kontseiluarekin, eta horrela, Kontseiluarekin Bai Euskarari plana aplikatzeko hitzarmena sinatu duen lehen Udala bihurtu da.

Udalak bere aldetik, 2.500.000 pezeta baino gehiago jarri ditu plana finantziatzeko



X. Mendiguren eta A. Sdupe kontseiluaren aholkularitza hitzarmena sinatzen. Pausoz pauso joango da plana

Esan bezala herriko euskalgintzak (Pil Pilean, S.E.H.E., A.E.K.) plana onartu ostean, Udalak ere bere onspena adierazi zuen. Hurrengo pausoa, gainontzekoendako erreferentzial izango diren 3-4 gizarte eragile Jarraipen Batzordea osatzera gonbidatzea izan da. Lautik bik eman diote baietza Jarraipen Batzordean parte hartzeari; Jarraipen Batzorde hori izango da gune garrantzitsuena eta bi hilean behin mahai baten inguruan elkartuko ditu, Udaleko, Euskalgintzako, Gizarte Eragileetako eta Kontseiluko ordezkariak, planaren inguruko balorazioak egiteko.

Jarraipen Batzordea sortu eta gero, Talde Eragilea sortuko da. Talde honetan Udaleko Euskara Teknikaria eta herrian plana gauzatzeko kontratatu diren bi

teknikariak izango dira. Lan teknikoa hauen esku geldituko da. Hortik aurrera gainontzeko gizarte eragileak gonbidatu, planaren aurrelanak prestatu, akordioa sinatu eta plana diseinatu ostean, konpromisoak hartu eta betetzeko ordua iritsiko da.

Lautik bik eman diote baietza Jarraipen Batzordean parte hartzeari

Plana 5 arlotan ezarriko da

Bai Euskarari plan estrategiko ez da oraingoz herriko gizarte arlo guztietan ezarriko. Bost dira aukeratutako arloak;

ITUR iturgintza

Iturgintza, Gasa Berogailuak Sukaldeak eta Bañuak



Santa Ana, 20 Behea
Tlfonoa: 639 17 96 96
Sakeleko tlfonoa: 656 30 85 24

Javier Alonso Zelaieta
Hortz klinika



Mediku estomatologoa
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma
Tfnoa 943 75 16 13

hezkuntza ez unibertsitarioa, finantzak eta aseguruak, kirola, kultura eta gizarte mugimenduak, hain zuzen ere. Denera 50 bat talde izango dira eta hauetatik %60 inguruk onartzea aurrakusten da, hasiera batean. Bost arlo hauek Eusko Jaurlaritzarekin batera Udalak daraman Euskararen Biziberritze planean lehentasunezko alor moduan markatuta dauden planak dira. Merkataritza eta enpresa mundua datorren urteetan lantzea dago aurrikusita plan honetan.

Euskalgintza taldea sortu da

Herrian euskalgintzan lan egiten duten taldeek Euskalgintzako Taldea sortu dute. Pil Pilean Kultura Elkarteak, Soralezeko Euskal Herrian Euskaraz eta A.E.K.-k osatzen dute taldea eta Bai Euskarari planaren jarraipen zehatz bat egitea du helburu.

Astelen gauean, 21:00eta biltzen dira A.E.K.n eta planaren inguruko gaiak eztabaidatzen dituzte. Hontaz gainera Korrika eta bestelako ekintzak

gabe doa, herritar denak daudela gonbidatuta bilera hauetan parte hartzera eta dagoen giroa egonda merezi duela parte hartzea.



Korrika datorrela eta, herriko talde ezberdinek egitarau ikusgarria prestatu dute

Azken urteetan, euskararen aldeko mugimendu handia sortu da herrian

antolatzeko gune egokia dela konturatu dira eta taldea mantentzea eta iraunkortzea pentsatzen ari dira. Esan

Azken urteetan euskararen alde egindako lana oinarri

Azken urteetan, euskararen aldeko mugimendu handia sortu da herrian eta sarri ezkutuan bada ere, asko aurreratu da elkarte elkarlan eta mugimenduaren antolaketan mailan. Herriko Euskalgintzak (Pil Pilean, S.E.H.E. eta A.E.K.) Udaleko aholku batzordearekin (Euskalgintza, Ikastetxeak, Euskara Tenikaria eta Batzordeburuak. Ezozi Larrañaga lehen eta Alberto Sudupe orain.) elkarlanean egindako lanari esker, Soralezek Kontseiluak eskeintzen duen Bai Euskarari plan estrategikoa martxan jartzeko beharrezko diren ezaugarri mini-moak betetzen ditu. Beraz, 2.001 plan estrategikoa Soralezuzen ezartzea, urte askotan egindako lanak posible egin duen aukera bat bezala ulertu behar litzateke.

Bai Euskarari Akordioa Soralezuzen gauzatzeko antolakuntza egitura

Jarraipen Batzordea

- * Bi Ordezkarari Udaletik (Eusk. Teknikaria eta beste bat)
- * Bi Euskalgintzatik (Pil Pilean, E.H.E.)
- * Hiru Gizarte eragile erreferentzial (Kutxa, Euskadiko Kutxa, Abesbatza)
- * Kontseiluaren ordezkarari bat

Euskararen Aholku Batzordea

- * Euskararen gizarte erakundeetatik (Pil Pilean, E.H.E., A.E.K.)
- * Udala (E.Teknikaria, batzordeburua)
- * Ikastetxeak (Istitutua, Ikastxea)
- Euskalgintzako Taldea**
- * Pil Pilean, A.E.K., E.H.E.

Talde Eragilea

- * Zuzendari teknikoa (Euskara teknikaria)
- * Teknikarixak (Aitor Madrid eta Egoitz Unamuno)
- * Euskalgintzako ordezkarari (Pil Pilean)

Egoitz Unamuno

Juan Mari Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59
Partikularra 943 74 03 69




Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria


Sukalde, enpotratu eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20



Haritz Laskurain Euskadiko selekzioan

Otsailaren hasieratik gure herriko pilotaria Euskadiko selekzioaren barne aurkitzen da. Eskuz banaka jokatzeko izan da autatua baina hau aldatu egin daiteke eta binakako partiduak ere jokatu ditu igual. Lehendik ere bere kontura entrenamendu gogorak egiten zituen eta selekzioan dagoenetik, prestakuntza hau gogortu egin behar izan du entrenatzaile berrien gomendioak jarraituz. Entrenamendu fisikoez gain, Haritzek selekzioko kideekin entrenamendu praktikoak egingo ditu astean zehar. Euskadiko selekzioak txapelketa batzuk prestatuko ditu, bai hemen eta baita atzerrian ere. Oraingoz jarrita daudenak:




Haritz Laskurain pelotaria

-Ekainean, Gazteizen Ameriketako herrialdeetako jokalarien kontra.
-Uztailean, Ameriketara joango dira bertan txapelketa bat jokatzera (hau ez da oraindik zihurtatu baina kasik segurua da)

Kontutan izanda Haritz lanean be badiharduela, meritu handia dauka dagoen mailan izateak. Animo Haritz eta suerte hurrengo txapelketetan.

Arrieta garaile Elgetan

Arrietak Deba baliagarria den partidua jokatu zuen joan den otsailaren 20-an Ubera II.ena bikote zuela. Partidua Elgetan jokatu zen eta aurrez aurre Bengoetxea eta Gandiaga pilotariak izan zituzten. Partiduen emaitza 22-14 izan zen, hori bai



Jon Arrieta

herriko jokalarari gaztearen garaipenarekin. Esan beharra dago eskuak minduta izan ostean lehen partidua izan dela. Animo ba, ea urrengoa ere irabasten duzun.

**Xuban Catalan
Gorka Salaberria
Txakarra**

Azken emaitzak

Deba arroko txapelketa

Kadeteak

Txurruka Rodriguez 22-12 Elgoibar

Gazteak

Azagirre Fernandez 22-7 Elgoibar

Euskadiko liga

Gazteak

Txurruka Jauregi 22-18 Zaramaga (Gazteiz)

Txurruka Azagirre 18-22 Berriz

Txurruka Jauregi 14-22 Baztan

Fernandez Alberdi 8-22 Lizarra

Intxaurrendoko txapelketa

Gazteak

Lasa (Urretxu) Jauregi 22-17

Nagusiak

Ubera II (Elgeta) Laskurain 13-22

Urretxuko txapelaketa Laister hasiko da eta bertan parte hartuko duten plazentziako pelotariak: Gazteetan banaka Fernandez Azagirre Alberdi eta Jauregi Nagusietan binaka Muguruza eta Arrieta

Zaramagako txapelketa

Nagusiak

Ubera I Laskurain 22-19

Kontulan Aholkularitza S.L.

**Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak**

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Telefonoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA



Estanfaciones **LAGA s.a.**

Industroaldea
telf: 943752350/1985
telex: 943751702

*42 postakutxa
20590 Soraluze*

Arandela pulituen fabrika
Standart Tipoa, Din eta Zeta
Araua, eredu edo planoen
araberako Estanzazio lanak.

Judoa

Aratz del Barrio *Judo Entrenatzailia*

Kirol honen inguruan, ezer gutxi genekigula eta Aratzengana jo dogu ia zerbait azaldu eta kirol honetan pixkat gehixago janzten garen.

Pil pilean- Danok dakigu Judo izeneko kirol bat bada guala baina zer egitten da kirol horretan ?

Aratz- Japoniatik datorren kirol bat da eta buruaren eta gorputzaren autokontrola lortuaz, defentsa pertsonala egitteko era bat da.

P.p.- Noiz hasi zinan judua egitten eta nundik etorri jatzun zaletasuna ?

A-5 Urte nekazela hasi nintzan juduan, aittak animatuta. Orain dala 3 edo 4 hilabete, aittak ezin zebala entrenamentuekin jarraitu eta neuk ekin notsan umiak entrenaziari.

P.p.-Zenbat ume dittuzu eta zein mailatan dare ?

A-11 Ume dittut, gerriko horittik marroiraino mailakatuta.



Aratz del Barrio

P.p.-Zela mailakutzen dira gerrikuak ?

A-Koloreka, horittik hasi eta beltza da maila altuena, 11 mailatan banatuta. Txapelketetan ostera, edadia eta pisua dira mailak egitteko kontutan hartzen diranak.

P.p.-Zein gerriko daukazu zuk ?

A-Marroia daukat baina oin beltza lortzeko ahaleginetan nabil.

P.p.-Zer esan leikezu ume edo heldu gehixago animau daittezen ?

A-Oso kirol politta da, zeure buruakin ondo egotia lortzen dozu eta jentia disziplinatua izateko balio dau. Jentia uste dabenaren kontra, ez da kirol arriskutsua, kontaktu gutxi dauka.

Futbola

Liskarra futbol zelaian

Joan den hilaren 10-ean Esoziko futbol zelaian Soraluzeke erregionalak Hamaikak Bat taldearen aurka jokatu zuen. Partidu hau ez zen oso ongi amaitu. Denok jakingo duzue zer gertatu zen baina despistaturik baldin badago hemen doa berria. Soraluze irabazten joan zen aldageletara, baina bigarren zatian Hamaikak Bat-ek partiduari buelta eman zion, azkenengo gola luzapen oso luzatu batean

sartu zuelarik. Hau ikusita jendea ezin izan zen bere tokian egon eta ikusleetako batek epailea jo zuen, lurrera bota zuen. Epaileak idatzitako aktaren ondorioz (nahiko kaskarra Soraren zuzendaritzak dioenez), joan den astean, ezarritako isunaren berri izan zuen taldeak. Hauexek dira isunak: Futbol zelaia partidu bat itxita. 25.000 pezetako isuna taldeari.

Sorako presidentea den Lasa jaunari bi hilabeteko inabilitazioa. Erregionaleko delegatuari hilabeteko inabilitazioa. Entrenatzaileari hilabeteko sanzioa. **Pil Pileanek** jakin ahal izan duenez direktibak errekurtsio bat aurkeztuko du ez dago ados sansioarekin eta. Berri gehiago hurrengo alean.

Sailkapenak

Kadeteak

	J	I	G	B	A	K	Pt
1. Allerru S.C.R.D.....	7	5	1	1	22	12	16
2. Eskolapioak K.E.....	7	5	1	1	15	7	16
3. Antoniano K.E.....	7	5	2	0	17	7	15
4. Soraluze F.T.....	7	3	3	1	13	12	10
5. Idiazabal K.E.....	7	3	4	0	12	13	9
6. Ikaiberri K.E.....	7	3	4	0	8	15	9
7. Vasconia B.C.D.....	7	2	4	1	10	11	7
8. La Salle C.D.....	7	2	4	1	15	19	7
9. Adavi-Eguzki.....	7	2	4	1	11	15	7
10. Behobia B.C.D.....	7	1	4	2	10	22	5

Jubenila Deboraldiko bigarren porrota

	J	I	G	B	A	K	Pt
1. Soraluze F.T.....	7	6	1	0	16	8	18
2. Ikaiberri K.E.....	7	5	0	2	28	13	17
3. Arrobi berri C.D.....	7	3	1	3	23	16	12
4. Ostadar F.T.....	7	3	2	2	15	10	11
5. Azkuene C.A.S.....	7	3	3	1	20	25	10
6. Urki C.D.....	7	2	3	2	14	20	8
7. Behobia B.C.D.....	7	1	2	4	8	9	7
8. Vasconia C.D.....	7	2	4	1	22	24	7
9. Groseko-San Ig.....	7	0	4	3	18	26	3
10. Euskalduna.....	7	1	6	0	13	26	3



Lakuesta

Optika



Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59



LAUDIN

PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g ff: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE

“Gaztetxia zer da eta zer izatia nahi dogu”

“Zein da Gaztetxian egoeria ? zela hobetu leike ? zela erakarri leike jentia Gaztetxera ? zela apurtu itxitasun itxura hori ? zein da bidia Gaztetiak gazte danendako lekua bihurtzeko ?”

Honek dira azken hilabetietan Gaztetxian egitten diran galderak. Gaztetxian edari barria itxi edo behintzat langile finkorik ez dagoenetik, jende gutxiago azaltzen omen da. Hasi-eran turnoko antolatutako taldiak egin ziran barria zabalik euki ahal izateko baina denporiak, turnuak lagatzen jua eta orain “self service” barra dago. Eguenetako asanbleetan sortu zan arazo honen danen gaineko arduria eta konponbide bila eztabaidatzen hastia proposatu zan. Orditik hona, bi hilabete inguruan bilera eta asanbleetan gai honen gainian eztabaidatu da, baina oindio ez da ezer garbirik etara. Poliki poliki, Gaztetiak zer izan bihar daben



Gaztetean egindako batzarretan jende asko izan da, batzutan.

eta hori izateko ze bide eta proiektu bete bihar diran erabakitzen juateko biltzen jarraituko dabe eta dudarik barik, herriko gazte eta gazte sentitzen diran

danak gonbidauta dare bene benetan, beren eritzixa emon eta Soraluzeko Gaztetxia pizteko. Animau eta jua, Gaztetxia danona da, zuria bebai !

Txatxilitxatxi eta Plan Plin Plan berriz be martxan

Udalak eta Plaentxi Herri Ikastetxiak, jua zan urtian moduan, aurten be umiendako Txatxilitxatxi egitasmua jarri dabe martxan. 50 Umek zeuken izena emoteko aukeria eta horretatik 36k emon dabe izena. Egitasmua, otsailaren 17xan hasi zan eta martxuaren 24an amaittuko da. Bixen bittartian, 36 umiak euskeraz dibertidu eta jolastu daixen, 6 begirale euskaldunekin hamaika ekintza egingo dittue; polideportibuan jokuak, Elosura

irteeria, Irteeria Txikiparkera eta zehaztu barik daren beste batzuk.



Plan Plin Plan be Euskararen Aholku Batzordiak umiendako prestatu daben bidia sorta bat da. Plan Plin Planek larunbat arratsaldia Planak proposatuko dotsez umieri. Irteerak autobusez egingo dittue eta Donosti aldera gehixenak. Antzerkera, patinatzera, barkuan ibiltzera, errearen parturen bat ikustera... Martxuan 4an Anoetara juango dira Errealan partidua ikustera. Ez dago gaizki, eh ?

Lonbide taberna

*Pintxo ezberdinak
Ardoak, kafeak eta likoreak*

Errabal kalea, 9
Tfnoa 943 75 14 07



Mendizabal

Okindegia

Kalebarren,10
Telefona 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefona 943 75 13 99
SORALUZE

Kuadrilen arteko olinpiadak, herri bazkarixa eta beste mila ekitaldi 12. KORRIKArako



badator **korrika**
mundu bat euskarara bildu

Herriko kultur, kirol eta euskara taldiak egitarau ikusgarri bat (begiratu ajendan) preparau dabe Korrikari ongi etorrixa egitteko. Abesbatza, Urrats Dantza Taldia, Ibilixan Ibilixan Bertso Eskolia, Soraluze Futbol Taldia, Pil Pilean, Beti Prest, Mendi Taldia, A.E.K., Mendi gainak ikutu bez, Ludotekia, S.E.H.E., Gaztetxia, Institutua eta Ikastetxiak,

HAIKA, Euskal Presoak Euskal Herrira, E.A., E.H. eta beste talderen batzuen artian osatu da egitaraua. Udalak 300.000 pezeta emon ditu eta horri esker, egitarauaren zati bat kanpotik ekarritako ikuskizunez beteko da. Egitarau arrakastatsu izan dadin, Plaentxiarrak animatzia bakarrik falta da.

EMON IZENA KUADRILEN ARTEKO OLINPIADETAN ETA KORRIKAKO AUTOBUSIAN BE BAI. EUSKARAK BIHAR GAITTU. AUPA PLAENTXIA !

MUNDU BAT BILDU EUSKARARA !



Bitoriano Gandiaga fraile eta olerkari euskalduna hil da Arantzazun

Otsailaren 21 ean hil zen Arantzazun, Bitoriano Gandiaga frailea 73 urte zituela. Gandiaga olerkari ere bazen eta idatzi eta kaleratu dituen 5 olerki eta erlijio liburuak dira, horren adierazle; Elorri (1.962), Hiru Gizon Bakarka (1.974), Uda batez Madrilen (1.977), Gabon dut anuntzio (1.986), Ahotsa behartu gabe (1.998). J. M. Lekuona euskaltzain eta olerkariak, hau esan zuen orain hiru urte Gandiagari Bilboko Liburu Azokak Urrezko Luma eman zionean: "Euskal poetak izan daitezke onak edo Gandiaga". Gure

herrira ere sarri etorri zen Gandiaga, San Andresera, Hirukurutzetara... Plaentxiar askorekin izan du harremana Gandiagak, baina bereziki estua, Julian Banda Ormaetxea eta bere emazte den Angelita Larrañagarekin. Harreman haundia eta estua omen zuten Bitorianok Julianek eta Angelita Larrañaga, eta horren adierazle eurei eskeini zien olerki liburuak. Ez omen dute sekula ahaztuko. Beste askok ere ez. Hainbeste maite zuen lurrak eman diezaiola atsedean euskalzale eta olerkari bikain honi.

*Hilgo naz,
Ta edertasunak
Jarraituko dau lurrean.
Aleluia.*

*Hilgo naz,
Eta jaustean,
Joko dot lurra, lurrean.
Aleluia.*

*Hilgo naz,
Eta erraiak
Lurtuko dira lurrean.
Aleluia.*

*Hilgo naz, eta lurrago
Jarraituko dot lurrean.
Aleluia.*

Egoitz Unamuno



Ventanas
Olarri

- * Aroztegia, PVCa, Aluminioa
- * Terraza estaldurak, Balkoiak
- * Leihoak, manparak

Mendiola Poligonoa 10
20590 Soraluze 73 Posta Kutxatila





PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Udal Batzarrak Izartu planari 2.481 miloi pezeta eskatzea adostu zuen



Pasa den otsailaren 21ean burutu zen ezohiko udal batzarrean alderdi politiko guztien adostasunarekin, Soraluze Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen IZARTU programa barruan sartzea eskatu zuen.

Plazentzian oso garrantzitsuak diren hainbat proiektu aurrera ateratzeko eginda eskaria, guztira 2.481 miloi pezeta dira erbili nahi direnak. 1.552 miloi Eusko Jaurlaritzak ipiniko lituzke eskariak aurrera egin ezker, eta beste zatia Udalak eta beste erakunde batzuek ipiniko lukete.

Herriaren birurbanizazioa dute helburu moduan ia proiektu guztiak, egoera txarrean dauden hainbat eraikuntza bota, eremu batzuen urbanizazioa, Karmelo



Mendizabalen industrialde bat... Hala ere beste ekimen batzuk ez dira baztertzen, emakumeentzako telelana proiektua esaterako.

Hil honen 6ean DEBEGESAko kudeatzailea eta arkitektoak xehetasun handiagoarekin aurkeztuko dituzte IZARTU proiektuaren nondik norakoak.

Urtarrilaren 29an egindako ohiko saioan

Gobernu Batzordeak ondorengo erabaki hauek hartu zituen:

Aurtengorako dirulaguntza hauek ematea erabaki da:
Gizaki Helbururi, 130.000 pezeta
DYAri, 85.000 pezeta

Odol emaili, 80.000 pezeta
Emakume Mastektomizatuei, 55.000 pezeta
Gaixoen Laguntzarako Bolondresei, 30.000 pezeta
Atxegiri, 80.000 pezeta.

Udal Zerbitzuetako lan taldearentzat arropak erosteko, "Maza"ren aurrekontua onartzea, 40695 pezetako zenbatekoz, gehi BEZ.

Gobernu batzordeak 2001eko otsailaren 12an egindako ohiko saioa

D.B.Hko Institutuan konponketak egiteko 53728 pezetako "Carpinteria Elorza" ren aurrekontua onartzea erabiki zen.
Euskera Batzordearen proposamenez

erabaki hauek hartu ziren aho batez.
Arrate Leunda Seperenari 50.000 pezetako ordaintzea, Gabonetan Ipuin kontari zikloan hiru saio eskaintzeagatik.

Soraluzeko AEKri 13.200 pezetako ordaintzea, 2000-2001 ikasturteko bigarren matrikulazio aldiko laguntza gisa

Gobernu batzordeak 2001eko otsailaren 19an egindako ohiko saioa

El Salvador eta Indiako herriei bakoitzari 500.000 pezetako dirulaguntza ematea erabaki zen:
Aurtengo Aratosteko 1.045.000 pezetako aurrekontua onartzen da.

Hezkuntza Batzorde Informatzailaren proposamenez, 60.000 pezetako ordaintzea "Bertso Eskola" ren ordezkari den Egoitz Unamuno Loidi Jn.ri 2000 urteko emandako eta oraindik kobratu gabe

duen dirulaguntza %40^a alegia.

Edu Pombar
Aitor Madrid



SAN ANDRES
Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak

Sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea
Tfmoa 943 75 16 46



TXURRUKA
JATETXEA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

Plazentzian...

Arafustiak!!!



Monroe Neskak
TXAPELDUN!!



Behi eruak solte
ibiliziran



Plazentzia
Rock and rolling



KONTUZ!!
Behimutil bihurrixekin



Kasianok bikoteak
zoriontsu egin zittuan



Kupido taldea jendia
maitemindu zeban

Vidal frutadenda

Zure
frutadenda

Etxaburueta 2
Tfnoa 943 75 20 55
20590 Soraluze



Iñaki Iñarra

Harategi eta Urdategia

*Jaixetan
alegrantza
soldata eta
bakantza*

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze



LARRIALDIETAN... zela jokatu bihar da?

Noiz edo noiz danok izan dogu larrialdiren bat ikusteko aukeria eta halakuetan urduri eta zer egin jakin ezta gelditu ohi gara. Egixa esateko oso garrantzitsua pentsatzen jata oso biharrezkua izango

litzakela danok, behintzat holako egoeretan zer pauso jarraitu bihar ditsugun jakitzia. Hori dala eta sail honetatik aholkutxo txiki batzuk emoten ahaleginduko gara.

Giza gorputzian 3 sistema garrantzitsu ditudugu aztertu biharrekuak, egoera larri bat gertatzen darian. Honek arnasketa sistemian, zirkulaziño sistemian eta giza konzientzi sistemian dira. 3 sistema honek dira lehenengo balorau biharrekuak eta bihar biharrezkua diranak bizi izateko. Baina hemen, tarterik ez dakagunez, pausoz pauso, hau dana azaltzeko ba lesio fisikueri buruz hitz egingo dogu, eta lesio honetan bizkarrezurrian emoten diraneri, honen meziprezuak ekarri leikezen kaltien importantziagaittik. Bestalde, beti ezertan hasi aurretik emon bihar dan lehenengo pausua, laguntza eskatzea da.

Bizkarrezurreko lesiñuak bertako artikulazio bat baino gehiago lesionau leikez eta horretaz gain bizkarrezurreko muinian be, bere eragina eduki leikez paraplejia edo tetraplejia bat sortuz. Lesiñua sortzeko modurik ohizkuenak:

- Altura haundittik bi hanken gainian gertatzen diran erorketak.
- Ipurdian gainian egindako erorketak.
- Bizkarrezurrian gertatzen diran golpe zuzenak.
- Lepuaren mugimentu bortitzak.

Lesio honen garrantzia bizkarrezurreko muinian izan leikezen eraginetan dago. Gaixuak sentittu ohi ditudan sintomak, honako honek dira:

Hausdurak eragindakua:

1. mina lesioa gertatu dan tokixan
2. deformitatea (oso zaila da ikusteko)
3. muskuluen kontraktura bat (gogortzea)

3. txingurriak ibiliko bazian moduko sentsazinua hatzamar edo behatzetan
4. esfinterren eutsiezina (txisa, kaka)
5. erreflexu falta

Zela jo katu bihar dogu?

1. **EZ da lesiñua daukan personia mobidu bihar;** biharrezkua izanez gero bloke bat izango balitz moduan mobidu bihar da (maniobra honek esperientzia eskatzen dau eta persona bat baino gehixagon artian egin biharreku da).
2. **Lesiñua daukan pertsona inmobilizatu egin bihar da norabait eruan aurretik.**
3. **Norabait eruateko, gogorra eta laua dan zeozzerren gainian eruan.**
4. **Bere kostante bitalak noizean behin zela daren kontrolau**

112
larrialdietarako
telefonua

Bizkarrezurreko muinaren lesiñuak eragindakua

1. beso edo hankarenbat mobidu ezina
2. sentsibilitate falta beso edo hankaren batean

Bizkarrezurreko lesioa ematean, gaizki eginiko mobimentu batek ondorio larrixak euki leikez

Ondorixio moduan, garbixen etaraten dotena da, larrialdi egoera baten aurrian zela jokatu, munda guztixak jakin biharko leukiela eta hori eskoletan erakutsi eta landu biharko litzakela. Informaziño gehixago nahi izanez gero jo: www.ctv.es/USERS/sos/abcpaux.htm interneteko helbidera edo zuzendu pilpileanera eta gustora lagunduko zaituztegu.

Oier Oregi


Maidier Lopez Etxeberria

Podologoia

65. kolejiatu zenbakia

Arragueta kalea,
2 bis C bajo
20600 EIBAR

Tlfnua: 943 82 04 88



Pub
Intxixu

Etxaburueta, 8 - beheia
Tlfnua 943 75 20 36

Soraluzeko txorixak

Enara Azpizurixa

Izen zientifikoa DELHION URBICAEuskarazko beste diturak Abijoia, Txenada,

isats-zuria, bragaro isats-zuria

Luzeera 12 - 13 zmZabalera 27 - 29 zmPisua 14 - 20 gr

Herri eta baserri inguruetan bizi da

Kumaketa maiatza 4 - 6



Herri haundi eta hirietan bizitzera edarki moldatu da hegazti hau. Hala be, baserri inguruetan be aurkitsu leike. Enara arrunta baino txikiagua da eta ez da hain liraina. Buztan

sardekaria eduki arren, ez dauzka enara arruntak dituen bi luma luzeak. Oso nabarmena da ipurdi zuri zuria. Taldeka egiten dute hegan batzuetan ehundaka. Intsektu hegalariz elikatzen da.

Aitor Madrid

"Eibarko Hegaztiak" Asier Aranberri

Sukaldaritzza

Hileko sukaldarixa

Txaro
Ucin

Txoko tarbernan gendela sukaldera hurbildu eta han pintxo artian, Txaro Ucin aurkitu genuen, berak sukaldarixa baino tabernarixa dala diño baina hala ere guk errezeta goxo bat etara ahal izan gontzan.

Pikilo pipar eta ganbadun moussa

Osagaiak:

Tipula
Pikilo piparrak
Ganbak
Arraultzak
Gatza
Esnegain likidua
Gurina

Zela egin:

Sartagi batean tipula ipintzen da olio pixka batekin. Tipula biguna daguean ganbak eta piperrak gehitzen jakoz. Dana eginda daguean batidoratik pasatuko da, arraultza eta esnegainarekin batera, gatz puntua zainduz. Nahasketa, aurretik gurinez igurtzita daguean molde baten jarriko da eta hau labera sartzen da "Maria bainuan" 35 minutuz eta su bajaran.

On egin lagunak!

Izaskun Gartzia

Goizeko 6:30-etatik
aurrera zabalik!!

Gosarixak eta pintxo
goxo goxuak !!

Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34



Ibilixan ibilixan bertso eskolia

Irteera eta bazkari, alai eta kantari, gara bertsolari



Bertso Eskolako ikasliak etxebarri baserriko ponyekin pasau zebeñ eguna.

Santa Agedak emon zotsan hasieria neguko hilabete hotz honi. Lehenengo otsailan 2xan kalian eta gero otsailan 3an basarrixetan, bertso eskolako ikasliak ohitura zarrari ganoraz eusteko lotsa gutxi izan eta limosnia, toki askotan batu bihar. Santa Ageda ostian, bazkari

Jaimito buruhaundi.
(M. Borinaga-J. Perez)

1)
Asko ikasi eta gaur erakustera, eskolatik Jaimito badoia etxera.

Riau,
riau, riau,riau rakataplau.
Jaimito laguna, buruhaundi horrekin ez dabil txukuna.

2)
Amari esan dotsa buruhaundi dela, edo behintzat eskolan esaten dotsela.

girora pasau da bertsoa. San Andresen eta mendi aldi, txorixak baino gehixao, bertsolari gaztetxo honek ikusi dia. Ez ditzuzuela ikusi? Pazientzia, laster entzungo ditzuzue eta ! Kukuak kantatzen dau, maiatzian Kuku, kuku, kuku !

Riau.....

3)
Gainera buru dana beteta daukala, ez ilez, baizik zorritz, txakurrak bezala.

Riau.....

4)
“Andra hartizu Jipa !” aitak errespuesta, “Safarira juañ bihar dogu untxe eta”

Riau.....

Doinua: Edurra teiltatun

Ygarten Ygartendotela



ARIES martxoaren 21etik apirilaren 21era
Diru askotxo daukazula? Ba, badakizu, inbertidu egin biharko dozu (eta ez taberna zuluetañ hain zuzen...)
Pil-eguna: 23



TAURUS apirilaren 22tik maiatzaren 21era
Ondiokan be bizkarreko minekin jarraitzen dozunez heldu da anbulatorixotik osteratxo bat egitteko ordua. *Pil-eguna: 14*



GEMINIS maiatzaren 22tik ekainaren 21era
Zaindizuz despistiak, egunen baten burua galdu eta mokuak etaratzera juañ arte ez zara konturatuko eta! *Pil-eguna: 5*




CANCER ekainaren 22tik uztailaren 22ra
Hotz eitxen dabela konturatu orduko demaseko katarria harrapauko dozu, zaindu zeure burua! *Pil-eguna: 21*




LEO uztailaren 23tik abuztuaren 22ra
Txuletoian hazurra faltan botatzen dabenetakua zarala igartzen jatzu. Bizitza gogorra da... *Pil-eguna: 20*



VIRGO abuztuaren 23tik irailaren 22ra
Gauzak ez baldin badittuzu seriotasun gehixagokin hartzen, lanik barik geldittuko zara. Gogorra, eh? Ba, espabilau!
Pil-eguna: 3



LIBRA irailaren 23tik urriaren 22ra
Bikotia pozik mantentzeko sekretua da zure dohainik onena. Zer emoten dotsazu? Behi eruen okelia, dioxinadun oilaskua...
Pil-eguna: 11




ESKORPIO urriaren 23tik azaroaren 22ra
Trankil egon zaitte, 3 egunen buruan gogorragua egitten hasiko zara eta. Ditzosozko berakua... *Pil-eguna: 25*




SAGITARIUS azaroaren 23tik abenduaren 21era
Fededuna izatia ondo dago eta Jangoikuari eskatzia be bai, baina erein barik ez dago jasotzerik. *Pil-eguna: 9*



CAPRICORNIUS abenduaren 22tik urtar. 20ra
Domeketan mendira juañ oso osasungarria da, baina kotxe barik horraittio!
Pil-eguna: Edozein domeka



ACUARIUS urtarriaren 20tik otsailaren 20ra
Erosi barri daukazuzen arraineri ura noizian behin aldatu egin bihar jakue, dana edan deixen etxoñ barik.
Pil-eguna: 2



PISCIS otsailaren 21etik martxoaren 20ra
Hainbeste gauzatan muturra sartuta ibiltziak zeuretako denpora barik lagatzen zaitxu. Benetan merezi al dau?
Pil-eguna: 12

Martxoko agendia

Mendi Taldearen irteera

Martxuaren 11a (domeka)

Ibilaldi neutrala (Oñatin)

Martxuaren 25a (domeka)

Otsabio 801m. (Altso)

MUNDU BAT EUSKARARA BILDU 12. KORRIKA

Martxuaren 31an (sapatuan)

10:30etan KUADRILEN ARTEKO OLINPIADAK

11:00etan Umiendako buruhaundixak

13:30etan TRIKI BERTSO POTEUA

15:00etan HERRI BAZKARIXA
(Orioko 5 bertsolari, trikitilarixak...)

18:00etan Soralezeko dantza taldiaren saiua
(Plaza Barrixan)

18:30etan Umiendako buruhaundixak.

19:00etan KUADRILEN ARTEKO OLINPIADEN FINALA

20:00etan PELOTA PARTIDUAK FRONTOIAN.

22:30etan KONTZERTUA GAZTETXIAN

Apirilaren 1an (domekan)

11:00etan Umiendako Jolasak (Beti Prest, Ludoteka).

12:30etan Hankapaluak.

13:00etan Buruhaundixak.

13:00etan Ezoziko Ama Abesbatzaren saiua.

13:30etan Trikitilarixak kalez kale.

17:30etan MUS, TUTE eta TRUK
TXAPELKETIA. GAZTIAK ZARREN KONTRA.

21:30etan KONTZERTUA GAZTELUPIAN.

Apirilaren 2xan Korrika

17:30etan KORRIKA psauko da herritik.

Apirilaren 4an (eguztzenian)

Soraluzeko Musika Eskolaren kontzertua.

Apirilaren 8xan (domekan)

Autobusa Baionara (han amaitzen da KORRIKA).

Zehaztu barik dare zein egunetan: Futbol

partidua, hitzaldixa, 4 fil laburren emanaldixa, ipuin kontalarixa, diaporama emanaldixa, bertso eskoliaren antzerkixa.

Olinpiadetan eta herri bazkarixan izena emoteko orrixak, tabernetan jarriko dira. Animo eta emon izena jarritakuan.

AZPEITTIKO AÑOTA SAGARDOTEGIXAN AFARIXA

50 lagun Pil Pileanekin Ibili bizkor autobusa erdi beteta dao eta !

Martxuaren 9xan, 19:30etan Gilan

Izena emoteko: Gila, Gaztelupe, Arrano, Lonbide, Txoko eta Gatzetxian. Martxuaren 6xa azken eguna.

Menua: Bakailaua saltsan eta tortilan, txuleta, postria. (3.500pezeta)

Bidaia eta afari txartelen prezioa: 3.500 (Bazkidiak, 18 urtetik beherakuak, jubilauak eta langabetuak)4.000 (Bazkide ez diranak)

Autobusian ordaindu.

Lehiaketia



Nun dago argazkixan agertzen dan kanpai dorre hau?

Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke.

DEITU BIZKOR BIZKOR
943 75 13 04

Aurreko aliaren irabazlia: Begoña Alberdi



Erregegi
Jatetxea
ESOZIA

Bº Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE

Etxabe harategia

Euskal txahalkia - Bildotsa

Merkatu plaza, 6-7 postuak
Tlfnoa: 943752375

Zorionak!!!



autobusak



Marta Aiora

10 urte

Zorionak politxorri!!!

Guraso, aittita eta amama, eta anaiaren partez.

Felisa Gorrotxategi

51 urte 2.001 - 2 - 26

Zorionak salada!!!

Umore eta alaitasun honekin jarraitu ezkerro beste 50 urte ere hartuko dituzu. Etxekuen partez.



Maizea eta Ainhitze

2 urte 2.001 - 3 - 19

2 urte 2.001 - 2 - 23

Zorionak!!!

Patxo haundi haundi bat etxeko txikitxueneri. Eta badakizue egin putz gogor, kandelak emetatzeko.

Tarsicio Velazquez

60 urte 2.001 - 3 - 11

Zorionak guapeton!!!

Hain ondo zare telebistako aktoriak bez dauke zer eginik zure onduan. Etxekuen partez.



Ainhoa Velazquez

27 urte 2.001 - 3 - 1

Zorionak eta urte askotarako!!!

Ez kezkatu urteak aurrera dihoazelako, txikitako aurpegi berbera daukazu eta. Etxekoen partez.



Jose Luis Catalan eta Beñat Catalan

43 urte 2.001 - 3 - 20

11 urte 2.001 - 3 - 18

Zorionak Catalantxueri!!!

Ez ginala akordauko pentsatzen zenduen eee...! Familixakuak.



Jose Aiora

2.001 - 3 - 12

Zorionak !!!

Mendi Taldiaren partez



Ane Ugaldé

18 urte 2.001 - 3 - 21

Zorionak Mari maistra!!!

Laga holako notak etaraziari eta hasi juerga onak botatzen!!! (badakazu zein gonbidatu) Lagunak.



Miren Muguruza

hilabete bat 2.001 - 1 - 21

Zorionak !!!

Neguaeren bihotzean sortutako loretxoa zara zu. Ezin esan zenbat poztu gaituzun...

Mirentxu.

Yaiza Fulgencio

urte bat 2.001 - 2 - 19

Zorionak !!!

Etxeko harri bitxia zara zu zara zu. Zure aita eta ama puntakuak partez.



Izaskun Gartzia

25 urte 2.001 - 2 - 10

Zorionak !!

Nahiz eta aurpegia tapau, zeu zara.

Pil Pileaneko lagunaren partez.

Miren Urtaza

73 urte

Zorionak !!

Etxekuen partez.



telefonoak

Udaletxea	943 753043
Faxa	943 753112
Udaltzaingoa	943 753024
Bake Epaitegia	943 751989
Arane Kiroldegia	943 752466
Osasun Etxea	943 752259
Larrialdiak-Elgoibar	943 743354
Larrialdiak- Donostia	943 461111
Zabaleta Botika	943 751384
Escala Botika	943 751638
Itxaropena Jubilatuen Etxea	943 752330
Zaharren Egoitza	943 751136
Soraluze Kiroi Elkarte	943 751029
Plautxi Herri Ikastetxea	
Haur Hezkuntza	943 751544
Lehen Hezkuntza	943 751937
Soraluze DBH Institutua	943 752365
Euskaltegia -AEK-	943 751434
Pil-Pilean Aldizkaria	943 751304
Helduen Heziketa Iraunkorra -E.P.A.-	943 753017
Taxia	943 751993/ 607 220808
Postetxea	943 751947
Apaiz Etxea	943 751370
Ertzaintza -Bergara-	943 765340
SOS Deiak	112

jaixotakuak

Xabier Moure Peña
Irene Carbajo Zafrá
Maialen Lete Arizaga
Bidanelurdes Mendizabal
Ariznabarreta

hildakuak

Eustakia Zubiarre Arrieta
M^a Angeles Azpilikueta
Murgialdai
Luis Ezenarro Uzin

Oharra

Jubilatu eta 18 urtetik beherako pertsonak bazkide izatia nahi badabe 1.500 pezeta ordaindu biharko dittuzte bakarrik.
Animatu eta egin zaitte bazkide!

ezkondutakuak

Alberto Ferro Ares
-
Laura Fernandez Larrañaga



iletargixan gorabeherak

Ilberri		Ilbete
Martxo 25		Martxo 9
Ilgora		Ilbehera
Martxo 3		Martxo 16

mezen ordutegixa

Astegunetan:

Arratsaldeko 19:00tan (elebiduna)

Sapatutan:

Arratsaldeko 19:00tan (euskeraz)

Domeka eta jai egunetan:

Goizeko 9:00tan (gaztelaniaz),
11:00tan (umeentzat euskeraz) eta
12:30tan (elebiduna)

Soraluze-Donostia:

Astelehenetik barikura lan egunetan: 6:55, 8:45, 13:45, 14:45, 15:45, 19:45.

Zapatu lan egunetan: 7:45, 8:45, 13:45, 14:45, 19:45.

Igande eta jai egunetan: 10:15, 19:45

Donostia-Soraluze:

Astelehenetik barikura lan egunetan: 6:15, 8:15, 12:00, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.

Zapatuan eta lan egunetan: 8:15, 12:00, 17:30, 19:30, 20:45.

Domeka eta jai egunetan: 17:30, 20:45.

Soraluze-Gasteiz:

Astelehenetik barikura lan egunetan: 7:00, 9:00, 11:00, 15:00, 18:15, 19:00.

Zapatu lan egunetan: 7:00, 9:00, 11:00, 15:00, 18:15, 19:00.

Domeka eta jai egunetan: 9:00, 11:00, 15:00, 17:00, 18:15, 19:00, 21:00.

Gasteiz-Soraluze:

Astelehenetik barikura lan egunetan: 7:30, 8:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 20:30.

Zapatu lan egunetan: 7:30, 8:30, 12:30, 16:30, 18:30, 20:30.

Domeka eta jai egunetan: 8:30, 9:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 20:30.

Bergara-Soraluze (urbanuak):

Astelehenetik barikura lan egunetan: 6:10, 7:20, 8:20, 9:20, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 18:20, 19:20, 20:20.

Zapatu lan egunetan: 8:20, 10:20, 12:20, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 18:20, 19:20, 20:20

Domeka eta jai egunetan: 13:20, 15:20, 17:20, 19:20, 20:20.

Soraluze-Bergara (urbanuak):

Astelehenetik barikura lan egunetan: 7:00, 7:05, 7:45, 8:15, 9:00, 9:15, 10:15, 11:00, 11:15, 12:15, 12:45, 13:00, 13:15, 14:15, 15:15, 15:45, 16:15, 17:15, 18:15, 19:15, 20:15, 21:15, 21:30.

Zapatu lan egunetan: 7:00, 9:00, 9:15, 11:00, 11:15, 12:45, 13:15, 15:00, 15:15, 16:15, 17:15, 18:15, 19:00, 19:15, 20:15, 20:45, 21:15, 21:30.

Domeka eta jai egunetan: 9:00, 11:00, 14:15, 15:00, 16:15, 17:00, 18:15, 19:00, 20:45, 21:00, 21:15, 21:30.

Soraluze-Eibar (urbanuak):

Astelehenetik barikura lan egunetan: 6:30, 7:40, 8:40, 9:40, 9:50, 10:40, 11:40, 12:40, 13:40, 13:50, 14:40, 15:40, 16:40, 17:40, 17:50, 18:40, 19:40, 20:40, 21:50.

Zapatu lan egunetan: 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 16:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Domeka eta jai egunetan: 13:40, 15:40, 17:40, 19:40, 20:40.

Eibar-Soraluze (urbanuak):

Astelehenetik barikura lan egunetan: 6:50, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:30, 21:00.

Zapatu lan egunetan: 9:00, 11:00, 13:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:30, 21:00.

Domeka eta jai egunetan: 14:00, 16:00, 18:00, 20:45, 21:00.

Iruñea-Soraluze:

Astelenetik zapatu lan egunetan: 10:30, 18:00. Domeka eta jai egunetan: 17:00, 20:30.

Soraluzetik-Iruñea:

Astelehenetik zapatu lan egunetan: 7:45, 13:45. Domeka eta jai egunetan: 9:15, 18:15.


Bitoriano Gandiaga gogoan



KAIOLAN jaio ziren
txori txoriburuek
askatasuna behar
omen zuten aurren.
Eta askatu zituzten.
Baina nola ez zekiten
alerik bilatzen,
goseak hil zituen;
eta nola ez zekiten
hegaz baliatzen,
katuak jan zituen;
eta nola ez zekiten
alkarri laguntzen,
ez ziren defenditzen;
eta nola ez zekiten
batera ibiltzen,
sakabanatu ziren.
Gero
kaiola zabaldu zienak,
jajaja luze batez,
farre egin zuen.

Bitoriano Gandiaga 1.974
"Hiru Gizon Bakarka".

Hilaren 9xan, barikuan Sagardotegira Pil Pileanekin !



Bazkide bazara 500 pezeta merkiago !!

**Martxoaren 9xan barixakuan
Azpeittiko Añota sagardotegira**

**Trikitilarixak, bertsolarixak eta sagardo
goxo goxua kupeletik !**

**Bakailaua, txuletak, intxaurrek eta
menbrillua jateko !**

Edateko nahi beste sagardo !!


Giro bikaina, emon izena eta etorri !

Autobusean izena emoteko: Gila, Txoko, Gaztelupe,
Lonbide , Gaztetxe eta Arranuan.


Prezioa: 3.500 pezeta (Bazkideendako, jubilau, 18
urtetik beherakuendako)
4.000 pezeta (Bazkide ez direnendako)

Irteera ordua: 19:00etan Gilako zubixan.

KUPELA KUPELA, SAGARDUAN HOTELA !!!



Badator Korrika badator



2001- Gasteiztik Baionarar • martxoak 29 > apirilak 8

badator korrika

mundu bat euskarara bildu



Maitasun gutunen lehiaketa

PARTE HARTZAILEAK

- Partehartzaileek plazentziatarak izan beharko dute.
- 14 urtetik gorakoak

LANAK

- Lanak euskaraz idatzitakoak (batuaz nahiz euskalkian), jatorrizkoak, inoiz argitara gabeak eta beste inongo lehiaketara aurkeztu gabeak izango dira. Itzulpenik ez da onartuko.
- Lanak txukun eta garbi aurkeztuko dira, eskuz zein makinaz idatzita.
- Gaia amodio gutuna izango da.

AURKEZTEKO MODUA

- Gutunak sobre haundi batean aurkeztuko dira, eta bertan honakoak sartuko dira:
- A) Gutunak egilearen izenik jarri gabe,

izenaren ordez goitizen bat jarrita aurkeztu. B) Azalean egilearen goitizena daraman sobre txiki bat eta barruan egilearen izen abizenak, jaioteguna, helbidea eta telefono zenbakia.

AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA

- Gutunak Soraluzeko Udalean aurkeztu beharko dira edo 27 posta kutxatilara bideratu, martxoaren 31 baino lehen (31goiza azken eguna).

EPAIMAHAI A

- Lanak Udaleko Euskara Batzordeko 3 kidek eta literatura aditu batek epaituko dituzte.

SARIAK

- 1.saria: 20.000 pezeta
- 2.saria: 15.000 pezeta

- Euskalkian idatzitako gutunik onenari: 10.000 pezeta

- Epaimahaikoen iritziz idazlanek ez balute kalitate maila egokirik ez da sariturik izango, baina bere kalitateagatik lanen batek mereziko balu, akzesiten bat eman ahal izango da.

BESTELARO OHARRAK

- Pil-Pilean Aldizkariak, saritutako lanak argitaratzeko eskubidea izango du. Egilearen aipamena eginaz.
- Saritu gabeko lanak hilabeteko epean jaso ahal izango dira aurkeztutako leku berean eta epe horren buruan jaso ez direnak ez dira lehiaketaren barne sartuko.
- Lehiaketa honetan parte harteak oinarri hauek eta epaimahaikoen erabakiak onartzea dakar.